

MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA: ETORKIZUNeko MUGIKORTASUNA

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campus:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
 - Automobilgintzaren Ingeniaritza - DUALA
 - Ingeniaritza Elektronikoa
 - Ingeniaritza Kimikoa
 - Ingeniaritza Mekanikoa
 - Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza + Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza
 - Gradu Bikoitza: Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza
 - Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola.
Nieves Cano kalea, 12 Vitoria-Gasteiz

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Jarduera honetan ikasleek mugikortasun elektrikoaren oinarriak esperimentatuko dituzte era praktikoa eta ludikoa. Eta hurrengo galderari erantzuna emango diegu:

- Nola mugituko gara?
- Nola funtzionatzen dute patinete elektrikoak, bizikleta elektrikoak, droneak edo auto elektrikoak?

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Mugikortasun jasagarria: mugikortasun elektrikoa.
- Motor elektrikoaren funtzionamendua.
- Ibilgailu elektrikoa: bere funtzionamendua eta birkarga.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Jarduera honen metodologiak bi ardatz ditu: esperimentazioa eta jolasa ikaskuntza-baliabide gisa.

Esperimentazioa: motor elektrikoaren funtzionamenduari eta ibilgailu elektrikoaren funtzionamendu eta birkargari buruzko 25 minutuko 3 muntaketa antolatu ditugu maketekin (tentsio-maila seguruko makinak eskalan), ibilgailu

elektriko hutsen eta hibridoen simulagailuekin, eta benetako makinekin. Maketekin eta simulagailuekin ikasleek funtzionamendu-oinarriak esperimendatu dituzte. Eta makina eta birkarga-sistema errealekin bere ezaugarri nagusiak, osagaiak eta funtzionamendua ezagutuko dituzte. Jolas-dinamika: muntaketa bakoitzean ikasle-taldeari gauzatutako esperimenduari buruzko galdera bat egingo diogu. Zuzena bada, hitz bateko fitxa bat lortuko dute. Lortutako fitxekin azken galderaren erantzuna aurkituko dute:

Nork erabakiko du zein eta nolakoa izango den etorkizuneko mugikortasuna?

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-15	Elebiduna	Goizez	10:00-11:30	12
2026-01-20	Elebiduna	Goizez	10:00-11:30	12
2026-01-21	Elebiduna	Goizez	10:00-11:30	12